

ASANBLADA (2020 Urtarrilak 16)

Hasiera 16:45 – 12 guraso elkartu gara.

Gaiak:

1. GURASO ELKARTEKO KARGU BERRIAK.

Karguak berriztu dira.

- Lehendakari: Larraitz Agirre
- Lehendakari orde: Urkiol Arkarazo
- Diruzain: Nerea Castro
- Idazkari: Xabier Abaunza
- Bokalak:
 - Aintzane Jauregi
 - Alexander Azpiri
 - Oihana Belar
 - Irati Ibañez

Karguak aho batez onartu dira.

2. SUKALDEKO OBRAK

Aurrera doaz, proiektua azaldu da.

- Orain dagoen aterpean 2-3 urteko gela joango da.
- 4-5 urteko gela 1. Solairuan.
- Ofiza eta sarrerako bulegoa dauden tokian sukaldea.
- Eraikin zaharrean psikomotrizitate gela + Haurreskola + ¿Ludoteka? + Guraso Elkartearentzako bulegoa.

Urtarrilak 20 astelehenean arkitektoa etorriko da eskolara.

3. GURASO ELKARTEKO KUOTA

Aurten epea ipini da Urrian, epe horren barruan ez duenak ordaintzen ezin izango du beranduago ordaindu.

Kuoten dirua zertarako erabiltzen den azaldu da.:

- Jaialdietako luntxak.
- Olentzeroren opariak.
- Barnetegiko 3.kuota.

Kuoten diruarekin ez du hau guztia ordaintzeko ematen horregatik lotería, egutegiak eta beste hainbat ekintza egiten dira diru-sarrerak gehitzeko.

4. EKINTZAK

Urtean zehar egiten diren ekintzak azaldu dira eta proposamenen artean Txitxiburduntzi eguna ere gehitzea erabaki da.

Igandea, Otsailarean 16ean egitea erabaki da eta guraso elkarteak ogia eta sua ipiniko ditu. Eguraldi ona badago irteera Apatako plazatik eta txitxiburduntzi Topen ospatuko da, eguraldiak ez badu laguntzen Apatan ospatuko dogu.

5. BESTEAK.

Luntxen gaia irten zen. Azkenengo luntxetan zer gehitu, zer kendu pentsatzen ibili gara. Asanblada batean onartu zen Koka Kola eta gas-dun edariak ez ipintea. Erabaki hauek guraso denen artean hartu dira Asanbladetan ez guraso elkartearen bileretan. Norbaitek proposamenik edo aldaketarik nahi badu Asanbladetan aurkeztu behar dira.

Proposamenak hurrengo luntxerako:

- Azeitunak kendu.
- Gaileta gatzituak 1ekin nahiko.
- Harrera taldekoei pizzak egiteko proposamena luzatu.

Honen bestez amaitutzat ematen da asanblada.